

Berbo dariola

Gutun
Zuria
Bilbao

Letren
Nazioarteko
Jaialdia

Festival
Internacional
De Las Letras

International
Literature
Festival

20
24

Otsaila 27-Martxo 2
Febrero 27-Marzo 2
February 27-March 2
gutunzuria.azkunazentroa.eus

PRENTSA DOSSIERRA

AURKIBIDEA

- AURKEZPENA
- BBK GUTUN ZURIA BILBAO SARIAK
- GUTUN ZURIA +PRO
- MASTER CLASS ETA TAILERRAK
- BASTIDA ARETOKO SOLASALDIAK
- AUDITORIOKO SOLASALDIAK
- BERRIKETALDIAK
- AURKEZPENAZ
- GUTUN ZURIA BILBAO ESZENAZ
- JARDUERA OSAGARRIAK
- GUTUN ZURIA ZABALIK
- JAIALDIAREN ESPAZIOAK
- PREZIOAK

Berba dariola izenburupean, Gutun Zuria Bilbao. Letren Nazioarteko Jaialdiaren edizio hau mugarik eta aukera-mugarik gabeko lurralde modura planteatzen da, hitza eta topaketa ardatz gisa hartuta.

Horrela, jaialdiak hausnarketa bultzatu nahi, du komunikazio ireki eta ausartak duen balioari buruz, hitzekin eta irudiekin lerratzeko prest, lurralde ezezagunetan barneratzeko.

Berba darion elkarrizketa honetan, ehundik gora sortzailek parte hartuko dute, arteen eta literaturaren, idazketaren eta irudiaren, argialetxeen eta liburu-denden truke askotariko batean... Jaialdiaren funtsa diren praktiken eta kezken gurutzaketa batean.

Gutun Zuria Bilbaok bere edukiak zabalduko ditu aurten, publiko gazteenari zuzendutako master classekin, narrazio-forma desberdinei buruzko solasaldiekin eta praktika garaikideen artean dabilen sorkuntza artistikoaren inguruko hitzaldiekin, bertsolari, idazle, musikari eta artista bisualen eskutik. Era berean, edizio honetan Gutun Zuria +PRO hasiko da, mundu profesionalari, liburuaren kateko eragileei zuzendutako guner berria, non urtero gaurkotasuneko hainbat gai eta eztabaida zirriborratuko diren pentsamendu kritiko batetik abiatuta.

Literatura-sorkuntzaren esparru horretan, BBK-k eta Azkuna Zentroa – Alhóndiga Bilbaok aurten ere Gutun Zuria Bilbao BBK Saria emango dute. Hirugarren edizio honetan, ohorezko makilaren formako saria Mariasun Landa idazleari (euskarazko haur- eta gazte-literaturaren berritzaile handiari) eta Juan Mayorga antzerkigileari (antzerkiak eta egileek arte eszenikoei egindako ekarpena irudikatzen duenari) egokitu zaie.

Jaialdiaren fokuak martxoaren 2an itzaliko dira, baina ez du atea itxiko, Gutun Zuria Zabalik ekimenaren bidez jarraituko baitu irekita. Letren eta letren hibridazioaren inguruko elkarrizketa-guner berria da Gutun Zuria Zabalik, eta urte osoan aktibatuko da.

Gutun Zuria Bilbao BBK SARIA 2024

Literatura-sorkuntzaren esparru honetan, BBK-k eta Azkuna Zentroa – Alhóndiga Bilbaok aurten **Gutun Zuria Bilbao BBK saria emango diete Mariasun Landari eta Juan Mayorgari**, euskal literaturaren eta dramaturgiaren erreferenteak baitira, hurrenez hurren. Mariasun Landa euskarazko haur- eta gazte-literaturaren berritzaile handia da, eta ospe handia lortu du egindako lanagatik, hala Euskal Herrian nola Euskal Herritik kanpo. *Txan Fantasma*, *Iholdi* eta *Krokodiloa ohe azpian* (Haur eta Gazte Literaturako Sari Nazionala) liburuak klasiko bihurtu ziren argitaratu zirenetik. Bere lana aitzindaria da gai sozialak era kritikoan jorratzen, haur- eta gazte-literaturako elkarrizketak denbora luzean zokoratuta izan dituenak, hala nola indarkeria, genero-rolak eta osasun mentala. Mariasun Landaren sariarekin, Azkuna Zentroak beti bere ezaugarrietako bat izan dena aldarrikatzen du: bere jardueretan, bereziki Mediatekan, haurrek izan duten garrantzia.

Literatura-adierazpen guztiez arduratzen den jaialdi gisa, eta arte eszenikoetan programazio egonkorra duen zentro gisa, Alhóndigak antzerkiaren eta antzerki-egileen ekarpena onartu nahi du, Juan Mayorgari saria emanda. Agertokian, elkarrizketak gainezka egiten du aktoreen ahotsean eta gorputzean. Bertan, eguneroko bizitzan esaten ez diren gauzak esaten dira, eta aurre egiten zaie horiei eta elkarrizketaren jatorri erradikalari, isiltasunari. Kezka horietatik sortzen da Mayorgaren obra, nazioarteko eszenako lanik liluragarri eta ausartenetako bat. Letren Asturiasko Printzesa Saria jaso zuen 2022an, eta gaur egun Madrilgo Teatro de la Abadía eta Alcalá de Henaresko Corral de Comedias zuzentzen ditu.

Jaialdia otsailaren 27an inauguratuko da, Mariasun Landari ohorezko makila emanez, eta martxoaren 2an amaituko da, Juan Mayorgari saria emanez.

Inaugurazio-ekitaldian, aurten, PERKUSBIKA arituko da, BOSeko perkusioko bakarlari Vicent Zaragozak eta Elur Arrietak osatutako perkusio-bikoteak. *Losa*

eta *Trio per uno* interpretatuko dituzte, musikalki zein instrumentalki oso estilo desberdineko bi pieza, perkusioaren munduak bereizgarri duen aniztasunaren erakusgarri.

Gutun Zuria +PRO

Otsailak 28 eta 29 10:00-14:00

Bastida Aretoa

Aurten, Gutun Zuria Bilbaoren esparruan, Gutun Zuria +PRO sortu da, liburuaren mundu profesionalari zuzendutako gune berria: liburu-saltzaileak, editoreak, idazleak, banatzaileak, itzultzaileak, ilustratzaileak, jaialdietako arduradunak eta kultura-instituzio publikoak... Liburuaren kateko eragileek, urtero, gaurkotasuneko hainbat galdera eta eztabaida zirriborratuko dituzte, pentsamendu kritiko batetik abiatuta.

Lehen edizio honetan, Gutun Zuria +PROk planteatuko du nola egiten dieten aurre argitaletxeek teknologia berrien erronkei, maila guztietan. Esperientzia-mahaien formatuan, bi egunetan, erronka horiek jorratu eta landuko dituzte publikoarekin, adimen artifizialaren erabilerari eta hainbat arlotako aurrerapen teknologikoei buruz: itzulpena, idazketa, edizioa, banaketa eta komunikazioa.

Horrela, Gutun Zuria +PROk esperientzia kolektibo baterantz zabalduko du jaialdia, eta Jorge Carrión idazle, kultura-kritikari eta Bartzelonako Pompeu Fabra Unibertsitateko Literatura Sorkuntzako Masterraren zuzendarikideak dinamizatuko du, kultura-sektorean espezializatutako kazetaria den Óscar Lópezekin batera.

Lehen edizio honetan, topaketen izenburua izango da Nola egiten dieten aurre argitaletxeek teknologia berrien erronkei. Argitaletxeen munduak erronka teknologiko berriei nola egiten dien aurre aztertzeke, hiru esperientzia-mahai izango dira jardunaldi bakoitzean.

I. Jardunaldia / Asteazkena, otsailak 28

09:30: Ateak irekitzea

09:45: Ongietorria

Jardunaldiaren aurkezpena: Óscar López Iñaki Estebanekin solasean

10:00-11:00: 1. Mahaia - Komunikazioa

- Irene Intxausti, Teklak. Komunikazio eta audientzien estudioa
- Iñaki García. Lin3s. Aholkularitza digitala
- Patricia Ventura. Adimen artifizialari buruzko komunikazio-aholkularia eta ikertzailea
- Elena Neira. Komunikazioko ikasketen irakaslea Kataluniako Unibertsitate Obertean –UOC
- David Bechimol. 451 Proiektuaren zuzendaria eta argitalpen-industriako aholkularia estrategia digitalen arloan

11:00-12:00: 2. Mahaia - Itzulpena / idazketa / egiletza

- Karlos del Olmo. Idazlea, itzultzailea eta interpretea, Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpreteen Elkarteko (EIZIE) kidea
- Antonio Moreno Sandoval. Madrilgo Unibertsitate Autonomoko (UAM) Hizkuntzalaritzako irakasle titularra
- Nora Aranberri, itzulpen automatikoan aditua eta EHUko irakaslea
- Irene Larraza, Etxepare Euskal Institutua zuzendaria
- 12:00 - 12:30: Atsedena - kafea

12:30-13.30: 3. Mahaia - Banaketa

- Verónica García. Machado Grupo de Distribución zuzendaria
- Maribel Riaza. Storytel. Audioliburuak, e-bookak eta podcastak

13:30-14:00: Ondorioak Óscar Lópezen eskutik

14:00: Lehenbiziko jardunaldiaren amaiera

II. Jardunaldia / Osteguna, otsailak 29

Jardunaldiaren aurkezpena: Jorge Carrión

09:30: Ateak irekitzea

09:45: Ongietorria

10:00-11:00: 1. Mahaia / Egile-eskubideak

- Mercedes Morán. Eskubide Erreprografikoen Espainiako Zentroko (CEDRO) abokatua
- Santiago Mediano. Jabetza intelektualean espezializatutako abokatua
- Igor Estankona. Euskal Kulturgileen kidegoa (EKKI)

11:00-12:00: 2. Mahaia / Bibliotekak

- Alicia Sellés. Liburuzaina, dokumentalista, European Bureau of Library, Information and Documentation Associations (EBLIDA) erakundeko kidea
- Elena Sánchez Nogales. Espainiako Biblioteka Nazionaleko (BNE) Berrikuntza eta Berrerabilpen Digitaleko zerbitziburua
- Fernando Juárez. Liburuzaina, ALDEEko presidentea. Artxibo, Biblioteka eta Dokumentazio Zentroetako Profesionalen Euskal Elkarte
- Lorena Fernández. Deustuko Unibertsitateko komunikazio digitaleko zuzendaria

12:00-12:30: Atsedena - kafea

12:30-13:30: 3. Mahaia / Liburu-dendak

- Jesús Trueba. Liburu-saltzailea (Buena Vida liburu-denda) eta Gremioen eta Liburu-saltzaileen Elkarten Espainiako Konfederazioko (CEGAL) kidea

- José Antonio Ruiz de la Torre, *Luces de Málaga* liburu-dendako zuzendaria, todostuslibros.com webgunearen sortzailea.
- Nerea Fillat. *Katakarak*. Liburu-denda eta argitaletxea

13:30-14:00: Ondorioak Jorge Carriónen eskutik

14:00: Bigarren jardunaldiaren amaiera

*Programa hau alda daiteke

Master classes eta tailerrak

Gutun Zuria Bilbao jaialdiaren programazioa goizero jarriko da abian, ikasleek euskal haur- eta gazte-literaturako erreferenteen bidez sorkuntza narratiboarekin egingo duten topaketarekin. Arratsaldeetan, Mediatekan, itzulpengintza-arloko publiko profesionalarentzat izango da prestakuntza.

Patxi Zubizarreta

Master class: *Liburua: gizartea eraikitzeko adreilua*

Asteazkena, otsailak 28 11:00-12:00 Auditorioa

Bigarren hezkuntzako ikasleentzat

Patxi Zubizarreta idazlea (Ordizia, 1964) haur- eta gazte-literaturan aritzen da batez ere, baina helduentzako eleberririk ere idazten ditu. Bere liburuetako batzuk gaztelaniara, katalanera eta galegora itzuli dira, besteak beste. Hainbat sari jaso ditu bere ibilbidean zehar; azkena 2023ko Haur eta Gazte Literaturako Sari Nazionala izan da, Zerria lanagatik (Erein, 2022).

Master class honetan, Zubizarretak honako gai hauek aztertuko ditu ikasleekin: Nondik dator istorio bat sortzeko gogoak? Nola ematen zaio forma genero desberdinetan (zinema, komikia, nobela...)? Hala, ikusgarri egingo da liburua sortzeko prozesua, literaturaren intrahistoria erakutsiz. Ideiaren sorreratik

argitalpenerainoko prozesuan egiten diren urratsez hitz egingo digu Zubizarretak, adibide zehatz eta irudizkoekin. Prozesuaren min eta pozak eta liburuak gizartean duen eta eduki beharko lukeen lekua, amets egiten jarrai dezagun. Pello Ramirez musikariaren laguntzarekin

Josune Muñoz

Master class: *Euskal literatura beste era batera*

Osteguna, otsailak 29 11:00-13:00 Auditorioa

Bigarren hezkuntzako ikasleentzat

Josune Muñoz euskal filologo eta ikerlariak Skolastika Servicios Literarios sortu zuen duela 12 urte, emakumeen kultura eta literatura aztertzeko eta zabaltzeko, metodologia propio batekin. 2022-23 ikasturtean, Batxilergoko euskal literaturari buruzko eskuliburu berriak sortzeko eskaera jaso zuen Skolastikak, eta horren prozesua eta emaitza azalduko ditu master class honetan.

Bertan, hizpide izango ditu euskal literaturaren kanona aldatzen duten eskuliburu berritzaileak sortzeko erabili diren irizpideak eta bibliografia berrien zirrikituak, errealitatean oinarrituta.

Narratiba, lirika eta dramatika tradizionalari irudizko literatura gehitu diote. Gainera, literatura irudikatzean ohikoak ez diren literatura-generoak landu dira, hala nola biografiak, autobiografiak, autofikzioak eta gutunak.

Hélène Vignal

Master class: *Dena esan daiteke nerabeentzat idazten denean?*

Ostirala, martxoak 1 11:00-12:00 Auditorioa

DBHko 4. mailatik aurrerako ikasleei zuzendua

Hizkuntza: frantsesez, gaztelania eta euskarazko aldebereko itzulpenarekin

Hélène Vignal idazlea (Paris, 1968) gazte-literaturan espezializatuta dago, eta bere lanak Frantziar, Italian, Txinatar, Korean eta Espainiar argitaratuta daude. Belaunaldien arteko topaketa, elkarrizketa eta konfrontazioko literatura proposatzen du. Erretratatzeko dituen pertsonaiak askotan beren emantzipazioaren alde borrokatzen dira, eta gai sentikorrei edo tabuei heltzen ausartzen da, guztiz sinetsita publiko gaztearekin guztia landu daitekeela, eta literaturaren zeregina pertsonari bizitzeko laguntzea dela.

Master class honetan, Hélène Vignalek bere Queen Kong lanaren idazketari helduko dio, eta argitaratu ondoren publikoak egin dion harrerari ere bai. Liburua editore konprometitu batek argitaratu zuen, sexualitateari buruzko gaiak jorratzen dituen bilduma batean. Vignalek gogoeta egingo du 2023ko udako ekitaldiei buruz, orduan bilduma horretako liburu bat zentsuratu baitzuen Frantziako Barne Ministerioak, eta irakurleen legeak adina 15 urtetik 18ra igo baitzuen.

Maialen Berasategi

Tailerra: *Literatura itzultzen*

Otsailak 28 eta 29. 16:00-18:00. Mediateka TK 101

Itzulpen-erloko publiko profesionalarentzat

Tailer honetan literaturaren itzulpenaren auzi printzipal batzuk aztertuko dira, batetik zenbait itzultzailek eta idazlek gintza horri buruz esandakoak berrikusiz, eta bestetik jardun horretan arian-arian piztu ohi diren buruhauste, zailtasun eta ertzei erreparatuz, dena ere adibide erreal eta praktikoekin jantzita eta xede hizkuntza gisa euskara harturik, taldean eztabaidatzeko zein diren kasuan-kasuan komenigarrien izan daitezkeen joera, trikimailu, irtenbide eta, zenbaitetan, etsibideak.

Bastida Aretoko solasaldiak

Euskal letrekin lotutako programa eta horrek gainerako praktika artistikoekin duten lotura Bastida Aretoan egingo dira batez ere, eta, hala, sorkuntza euskaldun garaikidea hurbilduko zaio publikoari. Bi edo hiru ahotsetako topaketak dira, elkarrizketa-formatukoak, mahai-inguruan edo errezitaldi musikatuan, eta esperientzia kultural berriak proposatzen dituzte.

Otsailak 28, asteazkena 17:30

Nerea Ibarzabal eta Arantxa Urretabizkaia *Etxeak eta Tabernak*

Beñat Sarasolak moderatutako elkarrizketa

Nerea Ibarzabalek eta Arantxa Urretabizkaiek *Etxeak eta tabernak* izango dituzte hizpide. Hitzaldiaren izenburuari jarraiki, oso belaunaldi desberdinetakoak diren euskarazko bi egileek aukera izango dute idazteko ofiziora nola hurbildu diren eta beren lanen irakurleen erantzunaren aurreko jarreraz hitz egiteko.

Nerea Ibarzabalek *Bar Gloria* argitaratu zuen 2022an. Urte horretan bertan Euskal Herriko Bertsolarien Txapelketako finalista izan zen. Bizkaiko Bertsolarien Txapelketa irabazi zuen 2021ean eta 2023an. Autoedizioa lantzen duen eta euskarazko sorkuntza kolektiboa ardatz duen Txakur Gorria taldeko kidea da.

Arantxa Urretabizkaia euskal literaturaren klasiko bat da, 1979an *Zergatik, Panpox* argitaratu zenetik. *Koaderno gorria* eta *Bidean ikasia* saiakeraren egilea da, bi aldiz irabazi du Literaturako Euskadi Saria eta euskaltzaina da.

Otsailak 29, osteguna 17:30

Miren Agur Meabe eta Sonia Rueda. *Fabulak antifabulak*

Soinuzko eta ikusizko ikuskizuna

Fabulak antifabulak ikuskizuna 2021eko Poesia Sari Nazionala eta 2022ko BBK Gutun Zuria Saria eskuratu zituen Miren Agur Meabek idatzitako zazpi fabulen inguruan eratuta dago. Eta berak gidatzen ditu ikuskizunera joaten diren pertsonak soinu eta ikusizko bidaia honetan. Ñabarduraz beterik dago, hunkitzen du, barre eragiten du, negar eragiten du, azken batean, sentiarazten du.

Zazpi fabulen bilduma honek ez du inolako asmo pedagogikorik. Hortik dator *Fabulak antifabulak* izena. Egitura klasikoari ere ez diote jarraitzen, eta, animalia batzuk aipatu arren, horiek ez dira protagonistak. Ahalegina egiten dute zenbait esperientzia deskribatzeko adiskidetasunaren, autonomiaren, kontzientziaren, etorkizunaren, toxikotasunaren, doluaren bizipenaren, trantsizioaren eta itxaropenaren inguruan. Formalki, oso desberdinak dira elkarren artean: ipuinetik poemara, letaniatik igarota. Ikasten jarraitzeko heldutasuneko fabulak dira, moralkeriarik gabeak.

Sonia Rueda artista plastikoaren ilustrazioek forma ematen diote idatzitakoari. Fabula bakoitza kolore baten bidez irudikatzen da eta irudiak TRACKEN studio-k animatu ditu. Proiektuari Inun kantaria gehitu behar zaio, fabuletako baten bertsoekin kantu bat osatu baitu.

Martxoak 1, ostirala

Jon Mikel Euba eta Txomin Badiola

Solasaldia

Gutun Zuriak gonbit egin die Txomin Badiola eta Jon Mikel Euba artista plastikoei solasaldi publiko bat egitera, gainezka egitearen, ezin eutsizkoaren idazketa hizpide hartuta. Beren lanean, idazketa erabiltzen dute, tradizionalki plastikari lotuta egon ohi diren beste baliabide batzuk bezain egoki. Horrek berekin dakar nolabaiteko gainezkatzea, eta horri lotu behar zaio duela hamarkada batzuetatik hona diziplina artistikoetan etengabe dagoen lerratze eta hibridazioen gertakaria. Literatura sartzea —gai artistiko bati buruz idazteaz aparte, idazketa jarduera artistikoaren zati gisa erabiltzea— beste urrats bat da prozesu horretan. Bereztasun batzuk ditu, eta horiek izango dituzte hizpide

topaketan, Caniche Editorial argitaletxean ateratako beren azken argitalpenak —*Malformalismo* eta *Vulnerario*— oinarriztat hartuta.

Martxoak 2, larunbata 17:30

Marta Sanz eta Luis López Carrasco: *Conversación sobre la conversación*

Solasaldia

Nobelan zein zineman, Sanzek eta López Carrascok ezaugarri komun bat dute, beste askoren artean: biak ala biak gai dira kulturaren munduan sarritan pixelatuta agertzen dena hurbiltzeko. Horrela, protagonismoa ematen diete prekarietateari (lanean eta bizitzan), ustelkeriari, sistema aldaezin eta zalantzarri batean fikziozkoa eta utopikoa denari.

Marta Sanz (Madril, 1967) filologoa eta idazlea da. Narratibako Ojo Crítico saria lortu zuen 2001ean *Los mejores tiempos* (Debate, 2000) lanarekin, Nadal Sariako finalista izan zen 2006an *Susana y los viejos* (Destino, 2006) lanarekin eta Herralde Eleberri Saria eskuratu zuen 2016an *Farándula* (Anagrama, 2015) lanarekin. Bere azken lana *Persianas metálicas bajan de golpe* (Anagrama, 2023) da, eleberri distopikoa, oraina kritikoki irudikatzeko zientzia fikzioa erabiltzen duen joko literario erradikala.

Luis López Carrasco (Murtzia, 1981) zinegilea eta idazlea da, eta Los Hijos ikus-entzunezkoen kolektiboaren sortzaileetako bat da. Bere azken filma, *El año del descubrimiento* (2020), Rotterdameko Nazioarteko Zinemaldian estreinatu zen, eta, besteak beste, film dokumentalik onenaren eta muntaketa onenaren Goya sariak irabazi ditu. 2023an Herralde Saria irabazi zuen *El desierto blanco* (Anagrama, 2023) lanarekin, zeina arrotz diren denbora eta espazio batetik ikusitako belaunaldi bati buruzkoa den.

Auditorioko solasaldiak

Gutun Zuria Bilbao topaketen ardatz nagusia Auditorioan izango da. Arratsaldero, idazleak agertoki horretan egongo dira, beren sortze-prozesuei eta horien sorburu diren istorio pertsonal edo sozialei buruz hitz egiten, literatura, artearen sistemaren parte gisa, bizitoki duen gizartearen isla eta gogoeta dela erakutsiz.

Otsailak 27, asteartea 19:00

Mariasun Landa eta Patxi Zubizarreta

Haur- eta gazte-literatura

Jaialdia asteartean inauguratuko da, otsailak 27, Mariasun Landari BBK Gutun Zuria Bilbao sariaren ohorezko makila emanaz. Gero, idazlea Patxi Zubizarretarekin arituko da hizketan.

Landa eta Zubizarreta euskal literaturako ezinbesteko bi idazle dira, eta haur- eta gazte-literaturaren arloan Espainiako Sari Nazionala jaso dute, besteak beste. Zer ikuspegi dute literaturaz? Zertan datza haur eta gazteei zuzendutako literatura? Nola egin zubi-lana liburuaren eta gazteen artean? Beren ikuspuntuen berri izateaz gain, solasaldi honek aukera emango digu beren ibilbideari buruzko xehetasun gehiago jakiteko.

Otsailak 28, asteazkena 19:00

Rosa Montero eta Gemma Ruiz

Mundua idatzi

Rosa Montero eta Gemma Ruiz Palá kazetaritzatik iritsi dira literaturara. Biak aritu dira mugimendu feministetan. Liburuaren munduan egindako ibilbideaz hitz egingo digute, kazetaritza-prestakuntzak eman dienaz. Bi belaunaldi desberdin dira, eta hizketan arituko dira gaurkotasunari, literaturaren munduari eta etorkizunari buruz duten ikuspegiak. Bataren laguna eta bestearen erreferentzia zen Montserrat Roig kazetari eta idazleak zioen, bere burua mundua eraldatzeko ezgauza ikusita, idaztea erabaki zuela. Literaturaren gaitasun eraldatzaile horretaz hitz egingo dute.

Rosa Montero (Madril, 1951). 2022ko Arte Ederren Merezimenduaren Urrezko Domina. Trantsizioaz geroztik Espainian literatura feministan izan diren aitzindari handien ordezkaria da, *Crónicas del desamor* eta *La función delta* eleberriei esker. Dozenaka libururen egilea da, zientzia-fikzioa ere landu du *Lágrimas en la lluvia* lanean, baita memoria pertsonalaren eta kolektiboaren arteko elkargunea ere, *La ridícula idea de no volver a verte* lanean.

Gemma Ruiz Palà (Sabadell, 1975) Televisión de Catalunyan aritu da kultura-kronista eta albistegietako buruorde gisa. Bere lehen eleberriak, *Argelagues* izenekoak, Vallèsoko ehungintzako fabriken lan-munduan bidea egiten ari diren hiru emakume borrokalariren istorioa kontatzen du. Bere azken lanarekin, *Les nostres mares* izenekoarekin, 2022ko Nobelako Sant Jordi Saria irabazi zuen, eta bere amaren belaunaldiko emakumeen ospakizun literarioa da.

Otsailak 29, osteguna 19:00

Bibiana Collado, Abdellah Taia, Anna Starobinets

Gerra eta su-etena, iragana eta etorkizuna

Elkarrizketa honek biltzen dituen hiru literaturek, hasiera batean, paraleloak dirudite, gurutzatzeko joera gutxikoak. Hala ere, elkargune bat baino gehiago dute hirurek. Eremu geografiko desberdinetatik —Errusia, Maroko/Frantzia eta Valentziako Erkidegoa, hurrenez hurren—, gaitzespen sozialaren esperientzia jorratzen dute beren literaturan, dela abortatzea erabaki dutelako hori onartzen ez duen herrialde batean, dela homosexuala izateagatik hori zigortzen duen estatu batean, dela langile-klaseko familia batean hazi eta desberdina, bere klase sozialetik erauzia sentitzeagatik, kultura-kapital handiagoa duten familietako beste pertsona batzuekin alderatuta.

Bibiana Collado (Borriana, Castelló de la Plana, 1985) irakaslea eta idazlea da. Idazkera poetikoaren esparruan, hainbat aintzatespen jaso ditu bere liburuengatik. *Yeguas exhaustas* (Pepitas de calabaza & Los aciertos, 2023), bere lehen eleberria, urteko debutik onenetakotzat jotzen da (El Cultural).

Espainiako XX. mendetik XXI. mendera arteko iragaitza jorratzen du, bere esperientzian oinarritua.

Abdellah Taïa (Sale, Maroko, 1973) idazle eta kazetaria da, eta Parisen bizi da 1998tik, autoerbestean. 2007an, TelQuel astekari marokoarraren azalean agertu Taïa zen, bere identitate homosexuala defendatuz. Hasierako eskandaluaren ondoren, sarritan esku hartu du Marokon, telebista publikoan ere bai, homosexualen eskubideez eztabaidatzeko. *Vivir a tu luz* (Cabaret Voltaire, 2023) bere azken lanak landa-aldeko emakume marokoarra den Malika bere amaren bizitzako hiru une kontatzen ditu, eta historiaren bidegabekerien aurkako borroka erakusten dute.

Anna Starobinets (Mosku, 1978) kazetaria, lan distopiko eta metafisikoen idazlea eta zinema eta telebistako gidoilaria da. *Una edad difícil* (Paperback, 2005) lehen liburua hogeita zazpi urte besterik ez zituela argitaratu zuen. Bere bibliografian *Tienes que mirar* (2017) eta *Impedimenta* (2021) nabarmentzen dira, kontakizun autobiografiko erdiragarria, hilda jaio zen bere haurtxoaren haurdunaldiari buruzkoa.

Martxoak 1, ostirala 19:00

Lucía Lijtmaer eta Brenda Navarro

Kazetaritzak kontatzen du, fikzioak ez du asmatzen

Lucía Lijtmaer eta Brenda Navarro idazle latinoamerikarrek, feminismitik abiatuta, literaturaren eta bizitzaren, egunerokotasunaren eta ohiz kanpokoaren, harreman pertsonalen eta haien kezka sozialen inguruan dauden kontraesanak aztertzen dituzte. Biek erabiltzen dute idazketa esplorazio formaleko eta aktibismoko ekintza gisa, jakintza literarioaren eta liburutik beste esparru batzuetara ateratzeko desioaren ekintza gisa.

Lucía Lijtmaer (Buenos Aires, 1977) idazlea eta kultura-kritikaria da. Egungo kazetaritzako ahotsik pertsonalenetako bat da berea, eta aurpegirik

ezagunenetako bat ere bai era guztietako kultura-ekitaldietan. *Princesas y Darth Vaders* (La Casa Encendida) jaialdi feministako komisarioa, itzultzailea eta eta pop kulturako unibertsitateko irakaslea. Liburuak hauek argitaratu ditu: *Quiero los secretos del Pentágono y los quiero ahora* (Capitán Swing, 2015), *Casi nada que ponerte* (Los Libros del Lince, 2016) eta *Ofendidos. Sobre la criminalización de la protesta* (Anagrama, 2019). Isa Calderónekkin batera, *Deforme Semanal* late night eta kultura- podcasta zuzentzen du, bi Ondas sari jaso dituena.

Brenda Navarro (Mexiko Hiria, 1982) soziologoa, ekonomialaria eta idazlea da. Emakumeek idatzitako lanak argitaratzera bideratutako #EnjambreLiterario proiektuaren sortzailea izan zen. Bere lehen eleberriak, *Casas vacías* (Sexto Piso, 2019) izenekoak, XLII Tigre Juan Saria irabazi zuen eta hamar hizkuntzatarara itzulita dago. *Ceniza en la boca* (Sexto Piso, 2022) izeneko azken lanean, desberdintasuna, xenofobia, deserrotzea eta antzeko gaiak jorratzen ditu, eta hamar hizkuntzatarara itzultzen ari dira.

Martxoak 2, larunbata 13:00

Nadal Suau, Mar García Puig eta Azahara Alonso

Gorputzak kontatzen du

Nadal Suau, Mar García Puig eta Azahara Alonsok gorputzaz, azalaz, generoaz, bizitzaz kontatzen dute. Begi-bistakoarekin hasi eta politikak eta kulturak ezkutuan eduki behar izan duten horretaraino. Poesia, narratiba edo saiakera dedikazio intelektualtzat hartzen hasi eta entitate somatiko-politiko bihur daitezten onartzeraino. Jakinik egia aldi berean dagoela sakonenean eta epidermisan. Idazteko edo tatuatzeko, pentsatzeko eta gozatzeko, maitatzeko eta gorrotatzeko, erditzeko eta uko egiteko egintzan, ohiz kanpokoan eta egunerokotasunean, ekintza intimoetan eta sozialetan.

Nadal Suau (Palma, 1980) saiakeragilea, literatura-kritikaria eta irakaslea da. Saiakerako Anagrama Saria irabazi berri du *Curar la piel* (Anagrama, 2023)

lanarekin. Bertan, tatuajea aztertzen du, marjinalitatearen lengoia zena nola bilakatu den pasarte biografikorik aipagarrienak gorputzean idazteko molde.

Azahara Alonso (Oviedo, 1988) filosofoa, idazlea eta literatura-kritikaria da. Azken hilabeteetako egilerik irakurrienetako bat izan da *Gozo* (Siruela, 2023) liburuari esker. Bertan, hausnarketa egiten du lanaz eta haren faltaz, denboraren politikaz, turismoaren erasoez, benetakoa izateko nahiaz eta gaur egungo beste hainbat aginduz.

Mar García Puig (Bartzelona, 1977) filologoa, editorea eta politikaria da. *La historia de los vertebrados* (Random House, 2023) kontakizunaren egilea da. Lan horrek 2015eko abenduan du abiaburua, ama izan zen eta, aldi berean, Kongresuko diputatu hautatu zuten egunean. Dena batera gertatzeak –bikien jaiotzak eta boto-emaileak ordezkatzeko eginkizunak– antsietatea piztu zion.

Martxoak, 2 larunbata 20:00

Juan Mayorga, Pedro Barea eta Patxi Lanceros

Juan Mayorgari BBK Gutun Bilbao Saria emanaz eta, gero, antzerkigile eta Asturiasko Printzearen Sariaren irabazle denarekin hitz eginez amaiera emango zaio jaialdiaren edizio honi. Bost egun hauek igaro ondoren, jarraipena izango du hurrengo hilabeteetan, Gutun Zuria Zabalik programaren bidez.

Tertuliak

Arratsaldero, Bastida Aretoko eta Auditorioko elkarrizketen aurretik, Mediateka topalekua izango da forma narratibo desberdinen eta praktika artistiko garaikideen arteko harremanaren inguruan hitz egiteko.

Asteazkena, otsailak 28, 16:00

Eleberri grafikoa eta ilustrazioa. Komikiaren Nazioarteko Egonaldia

Topaketa honetan Fran Mengual, Lisa Blumen eta Pascale Sévigny-Vallièresek parte hartuko dute. Gaur egun, Komikiaren Nazioarteko Egonaldian daude hirurak, Azkuna Zentroak, Quebeceko Maison de la Littérature-k eta Angulemako Cité Internationale de la Bande Dessinée et de L'image-k batera antolatutako ekimenean.

Osteguna, otsailak 29, 16:00

Adimen artifiziala. Jorge Carrión

Jorge Carrión (Tarragona, 1976) humanitateetan doktorea eta idazlea da. Bere azken eleberrietako batean, Membrana (Galaxia Gutenberg, 2021) izenekoan, adimen artifizialaren kideko lengoia bat erabiltzen du botere teknologikoaren erraiak aztertzeko. Librerías (Anagrama, 2013) liburuaren egilea ere bada. Hor, ibilaldi bat egiten du kultura eta komunikaziorako gune horietan barrena, munduan dituzten lokal seinalatuenetara joz, eta hausnarketa egiten du iruditeria kolektiboan duten zereginaz.

Ostirala, martxoak 1, 16:00

Etorkizuneko antzokiak. Isaac Rosa eta Natalia Balseiro

Teatros del futuro fabula espekulatiboen bilduma bat da, antzokietarako etorkizun posiblei buruzkoa, antzokietatik abiatua. Natalia Balseiro ikertzaile, kuradore eta kultura-bitartekariak zuzendutako proiektu honen bidez, besteak beste, gonbit egin zaie artistei eta idazleei Estatuko arte biziei lotutako bost proiektu inspiratzailei buruz idaztera.

Gune inspiratzaile horietako bat Azkuna Zentroa da, eta Isaac Rosa idazlea izan da kontalaria, [Simuladores de vuelo](#) fabularekin.

Aurkezpenak

Martxoak, 1 ostirala 13:00. LAB 3

Pablo Marte *Eras*

Pablo Marte (Cádiz, 1975) artista, idazlea eta ikertzailea da. Gaur egun, Babestu. Azkuna Zentroaren Sorkuntzari Laguntzeko Programako egoiliarra da, *Violencia Fantasía* ikerketarekin, non desiraren eta indarkeriaren arteko harremana aztertzen duen edertasunaren eraikuntzari begira.

Esparru sortzaile horretan, Gutun Zuria Bilbaon, *Eras* poema aurkeztuko du, marrazki, irudi, liburu-azal, objektu eta testuz osatutako instalazio baten itxura hartuta.

Martxoak, 2 larunbata 11:00. Bastida Aretoa

Miren Amuriza, Malen Amenabar, Iñigo Astiz

Presentación del libro *Titiritari*

Titiritari poema-liburu ilustratua hurrei eta helduei zuzenduta dago. Irakurtzeko, kantatzeko, jolasteko liburu bat da. Testuek eta irudiek Portal 71k eta Anita Maravillasek elkarrekin egindako antzerki-ibilbidea dute abiaburu.

Aurkezpenean, Miren Amuriza idazlea eta Malen Amenabar ilustratzailea lan honetaz arituko dira, eta, gainera, hizpide izango dute literatura eta antzerkia, bilaketa eta esperimentazioa, txotxongiloak, hariak eta titiriteroak, Iñigo Astiz kazetari eta idazleak gidatutako elkarrizketan.

Martxoak, 2 larunbata. 12:00. Bastida Aretoa

Isabel de Naverán Lorea Alfarorekin

La ola en la mente

Hitzaldia eta liburuaren aurkezpena

La ola en la mente Isabel de Naveránek 2021 eta 2023 bitartean Azkuna Zentroko ikertzaile AZkide gisa egin duen proiektuaren emaitza da. Proiektuaren ardatza idazketa somatikoa da, entzuteko eta kuratoretzako modu gisa. Lorea Alfaro artistarekin izandako elkarrizketa saiakera poetiko bat da. Bertan, testuak eta irudiak korapilatzen dira, galdetzeko eragiten digun horrek

—eszena batek, emozio batek— nola tenkatzen dituen lanaren eta bizitzaren arteko harremanak, eta keinu batzuek nola hartzen duten forma berri bat hizkuntzaren mugarekin zuzenean topatzean.

Topaketa hau eskuragarri egongo da *La ola en la mente* argitalpenean, Azkuna Zentroak argitaratutako liburu korralaren. Saiakeraren eta kontakizun literarioaren artean dauden testuen polifonia bat biltzen du, eta testuak bost emakumeren ikerketen emaitza dira, Isabel de Naveránek haiekin hitz egin baitu ikerketa honen esparruan.

Gutun Zuria Bilbao eszenAZ

Martxoak, 2 larunbata. 19:00 Kubo Baltza

Gastón Core

Antes que caiga la noche

eszenAZek, Azkuna Zentroaren Arte Bizien Denboraldiak, bat egingo du Gutun Zuria Bilbaorekin, dantza, hip hop eta rapa uztartuz Gaston Corek Euskadin estreinatuko duen *Antes que caiga la noche* ikuskizunean. Koreografo argentinarraren azken sorkuntza epopeia greziarraren berrirakurketa bat da, garaikidetasunetik egina, rap-gatazka bihurtua.

Koreografo eta antzerki-sortzaileak honela definitzen du obra: «Mendebaldeko literaturaren sorrerako obrarekiko begirada eszenikoa eta gogoeta estetikoa, rap hizkuntzaren eta hip-hop kulturaren bidez egina». Piezak transmititzen du testu horretan hitzak duen indarra, historian duen garrantzia, bere baliabide narratiboen eta lantzen dituen gaien modernitatea.

«Iliada, batez ere, konfrontazio bat da gizarte jakin baten eta bere aurreko mundu mitiko eta heroikoaren balio-sistemaren artean. Bestalde, bere buruari aurre egiten dion gizon baten istorioa da, era horretan, bere gain hartzen baitu talde horretan betetzen duen eta gizabanako gisa zentzua ematen dion funtzioa», nabarmendu du Gaston Corek.

Jarduera osagarriak

Otsailak 29, martxoak 1 eta 2

Mama Crea

Desiderata

Kulturen Ataria

Elkarrizketa gainezkatua zuzeneko eta partekatutako esperientzia bihurtzen da *Desiderata* lanean. Ospitale honetan, liburuak pazienteak dira eta sendabidea ikaskuntza da. Mama Crea eta Azkuna Zentroa – Alhóndiga Bilbaoren ekoizpen eszeniko honek dei egiten du liburuen garrantziaz hausnartzeko, irakurtzeko eta idazteko espazioak eta objektuak mimatuz.

Liburuen ospitale hau berariaz diseinatuta dago inspiratzeko eta pertsonak hezteko liburuen inportantziaz, eta irakurketaren eta liburuen eta idazlanaren oinarrizko elementuen konponketaren bidez egiten du. Hala, arte-erakundeak hau aukera paregabea da bertaratutakoek irakurketaren edertasuna eta boterea deskubritu ditzaten, eta jakin dezaten sendatzeko eta hazkunde pertsonalerako tresna bat izan daitekeela. Gainera, trebetasun baliagarriak eta lagungarriak ikasiko dituzte liburuak konpontzeko, gero beren egunerokotasunean aplikatzeko modukoak.

Gutun Zuria Zabalik

Jaialdiaren fokuak martxoaren 2an itzaliko dira, baina atea ez da itxiko, Gutun Zuria Zabalik ekimenaren bidez irekita jarraituko baitu. Letren eta letren hibridazioaren inguruko elkarrizketa-gune berria da **Gutun Zuria Zabalik**, eta urte osoan aktibatuko da.

Jaialdian landutako gaiak hedatu eta garatuko dira gunean, ikuspuntu, perspektiba eta eztabaida berriekin. Era berean, literaturaren inguruan sortzen diren joerak eta eztabaidak aztertuko dira, sorkuntza garaikidearen eta bere testuinguru sozialaren barruan.

Oskar Alegria zinemagileak inauguratuko du Gutun Zuria Zabalik, Zinzindurrunkarratz bere azken lana aurkeztuz. Ikus-entzunezko ibilbide poetiko bat da, behialako memoria batean barrena, haren zati batzuk baino geratzen ez direla.

Oskar Alegria zinemagileak Gutun Zuria Zabalik inauguratuko du apirilaren 15ean, bere azken lana aurkeztuz, *Zinzindurrunkarratz*. Ikus-entzunezko ibilbide poetiko bat da, behialako memoria batean barrena, haren zati batzuk baizik geratzen ez direla.

Oskar Alegria, pertrechado con su super-8, regresa a los senderos por los que Oskar Alegria, bere super-8az hornitua, aitona-amonek Artazuko mendietan (Nafarroa) ibilitako bidezidorretara itzuliko da, jada existitzen ez den mundu baten oihartzunak erregistratzera. Irudi mutu eta soinu itsuetatik abiatuta, filma eguneroko gisa eraikiko da. Izenburuak euskarazko ahoskera onomatopeiko bati egiten dio erreferentzia: brisa arin bat (zinzin), erortzen den harri bat (durrundurrun) eta tximista batek jotako gailur bat (kurruskarratz). Filmak zubiak zabaltzen ditu Jonas Mekasen filmografiarekin, eta nortasun bakan bat erakusten du, ikusleari gogorarazten diona zineman oraindik ere gauza asko daudela ezagutzeko.

Jaialdiko espazioak

BASTIDA ARETOA

Bastida Aretoa zentroko -2 solairuan dago, eta idazleak eta publikoa elkartzeko topagunerik intimoena da. Leku honetan, funtsean, euskal letrekin lotutako programaren zatia garatzen da, baita gainerako praktika artistikoekin duten lotura ere, eta euskal sorkuntza garaikidea hurbiltzen zaio publikoari. Bi edo

hiru ahotsetako topaketak dira, elkarrizketa-formatukoak, mahai-inguruan edo errezitaldi musikatuan, eta esperientzia kultural berriak proposatzen dituzte.

Bastida Aretotik euskal literaturako figura ugari igaro dira, besteak beste, Iban Zaldua, Miren Narbaiza, Uxue Apaolaza, Jon Gerediaga, Eider Rodríguez eta Katixa Agirre.

Gutun Zuria Bilbao ekimenaren edizio honetan euskal kulturaren ordezkariak parte hartuko dute, hala nola Nerea Ibarzabal bertsolariak, Arantxa Urretabizkaia idazleak eta Jon Mikel Euba eta Txomin Badiola artistek. Halaber, Fabula/Antifabulak soinu eta ikusizko ikuskizuna nabarmentzen da, Miren Agur Meabe idazlearen, Sonia Rueda ilustratzailearen eta Inun musikariaren eskutik.

AUDITORIOA

Gutun Zuria Bilbao Jaialdiko topaketen ardatz nagusia Azkuna Zentroko Auditorioan izango da, eraikineko -1 solairuan. Arratsaldero, idazleak agertoki horretan egongo dira, beren sortze-prozesuei eta horien sorburu diren istorio pertsonal edo sozialei buruz hitz egiten, literatura, artearen sistemaren parte gisa, bizitoki duen gizartearen isla eta gogoeta dela erakutsiz.

Agertoki horretatik, azken urteotan izan diren sorkuntza garaikideko ordezkari nabarmenak igaro dira: Enrique Vila-Matas, Rafael Lechowski, Joan Fontcuberta, Cristina de Middel, Agustín Fernández Mallo, Valérie Mréjen, Martha Rosler, Santiago Auserón, Cristina Morales, Gabriela Wiener, Theodor Kallifatides, Elvira Dyangani Ose, Kirmen Uribe, Sara Mesa, Manuel Rivas, Pol Guasch, Munir Hachemi, Leire Bilbao, Sara Torres, Abraham Boba eta Bob Pop.

Aurtengo edizioaren protagonistak Mariasun Landa, Juan Mayorga, Rosa Montero, Bibiana Collado, Lucía Lijtmaer, Marta Sanz, Nadal Suau eta Anna Stabironets izango dira.

KUBO BALTZA

Kubo Baltza Azkuna Zentroaren agertoki berria da eta Lantegia. Ideien laborategian dago. Agertoki ez konbentzionala da, eta praktika garaikideak garatzeko pentsatuta dago, batez ere arte biziak. Kubo Baltzan, publikoaren eta artisten banaketa ausazkoa izan daiteke espazio osoan; hala, ikuspegi desberdinak eskaini, eta bide eman dezake errepresentazio artistikoan murgildutako esperientzia izateko.

Bere aldakortasunak errazten du ikusleak hurbil daitezen, eta, beraz, agertoki ezin hobe da Gutun Zuria Bilbaoren programaziorako, elkarren arteko harremana eta ikaskuntza sustatzen baitu.

Gune honetan egiten dira Azkuna Zentroaren aurkezpen editorialak, idazleen eta ikasleen arteko topaketa batzuk eta jarduera profesionalagoak ere bai.

Aurten, Kubo Baltza izango da Gutun Zuria +PRO foro berriaren gunea. Liburu-saltzaileak, editoreak, idazleak, banatzaileak, itzultzaileak, ilustratzaileak, jaialdietako arduradunak eta kultura-instituzio publikoak izango ditu xede. Bertan, urtero, gaurkotasuneko hainbat auzi eta eztabaida zirriborratuko dira, pentsamendu kritiko batetik abiatuta.



Solasaldiak: 3€ / 2€ AZ Txartelarekin

Gutun Zuria Bonua 9 elkarrizketa + BBK Gutun Zuria Sarien banaketa + *Fabula/antifabulak* eta *Antes de que caiga la noche* ikuskizunak / 25 € (bonukopuru mugatua: 15 ale)

Auditorioko elkarrizketen bonua

5 elkarrizketa + BBK Gutun Zuria Sariak: 10 € (bonurako kupo mugatua: 50 ale)

Liburuen eta proiektuen aurkezpena

Sarrera dohainik, web orrian izena eman ondoren

Berriketaldiak

Sarrera dohainik, leku guztiak bete arte

Arte eszenikoak

Gaston Core. *Antes de que caiga la noche*. 15 € / 10,50 € AZ txartelarekin

Miren Agur Meabe eta Sonia Rueda. *Fabula/antifabulak*: 8 € / 5 € AZ txartelarekin

Master class: Sarrera dohainik, ikastetxeekin itundua

Tailerra: Maialen Berasategi. *Literatura itzultzen* 18 € / 12 € AZ txartelarekin

GUTUN ZURIA + PRO jardunaldiak

- +PRO pasea (bi jardunaldi): 45 €
- Eguneko pasea: 25 €
- Erosketa aurreratua: %70eko deskontua oinarritzko tarifaren gainean, otsailaren 16a baino lehen erosituta

Tarifa murriztuak

- AZ txartela
- 30 urtetik beherakoak eta 65 urtetik gorakoak*
- Kulturaren eta hezkuntzaren sektoreko profesionalak*
- % 33ko desgaitasuna duten pertsonak (online eta AZinfo)
- % 50eko desgaitasuna duten pertsonak, gorpil-aulkian eta laguntzailearekin. % 50eko deskontua prezioan, dohainik laguntzailearentzat. (online eta AZinfo)

* AZinfotik baizik ezin da erosi, egoera pertsonalaren egiaztatzea begiratu da (NAN, justifikazio-txartela...).

Gutun Zuria Bilbok BBKren babesa du, Etxepare Institutuaren eta Frantziako Institutuaren laguntza, eta Renferen eta Cafés Baqueren

babesa, eta Radio 3rena, EITBrena, El Correorena, Cadena Ser-ena eta Deia-rena, komunikabide-partner erdi gisa.